

XVI

Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

Certamen literario infantil y juvenil en euskera



2005

BARAÑAINGO UDALA
EUSKARA ARLOA



AYUNTAMIENTO DE BARAÑAIN
ÁREA DE EUSKERA



Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2005eko udazkenean antolatutako haur eta gazteentzako literatur lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 172 lan aurkeztu ziren eta epai-mahaian pertsona hauek egon ziren:

Presidentea

Alberto Ardanaz Fernández

Udalaren Euskara Kontseilukidea

Koldo Laskibar

Alaitz DBH Institutuko irakasleak

Jokin Muñoz

Maite Gorospe

María Ángeles Arregi

Alaitz LH Ikastetxe Publikoko irakasleak

Iñaki Andueza

José Luis Ladrero

Olaia Erbiti

Ika Sahats euskaltegiko irakasleak

Aitziber Garralda

Arrosa del Burgo

Aszen Argandoña

Izaskun Uriarte

José Ramón Olano

Josu Asumendi

Josu Mujika

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil/juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en el otoño de 2005. En total se presentaron 172 obras y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

ARGITALPENA / EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

DISEINUA / DISEÑO

HEDA Comunicación

INPRIMAKETA / IMPRESIÓN

Gráficas ONA

L.G. / D.L.

NA. 2514/2006



Aurkezpena

Euskaraz pentsatu, idatzi eta bizitzea.

Hitzaurrea jarraian irakurri ahalko dituzuen kontakizunen egileei zuzendua dago, batez ere. Lehenik eta behin, ESKERRAK eman nahi dizkiet, eskerrik asko kateatutako hizki hauek oparitzeagatik, alaitasun eta bizitasun hau emateagatik, eskerrik asko zuen irribarrearengatik eta guk ere irribarre egitea lortzeagatik.

Espero dut liburu hau den bezala gordetzea; altxorra baita, denborarekin balioa galtzen ez duena, irabazten baizik. Egunen batean, urte batzuk barru, kontakizun hauek irakurriko dituzue berriro eta irribarre egingo duzue berriro; lotsatu samarrak egingo duzue, akaso, baina, barnetik, harro-harro. Harro-harro, batere erraza ez delako paper zuri baten aurrean eseri eta hizkiz, sormenez betetzea; harro-harro, euskara, aspaldi-aspaldiko hizkuntza baina, aldi berean, gaur-gaurkoa, guztiona dena, egunetik egunera berreskuratzen ari delako zuena bezalako ekarpenei esker.

Euskaraz irakurri, idatzi, pentsatu eta bizitzea da zerbait nafar guztiok egin ezin izan duguna, euskara gure hizkuntza bada ere; erabili ezazue, beraz, faborez! Euskara maite dugunok beti eskertuko dizuegu hori.

Ez zarete etorkizuna soilik, oraina ere baitzarete, batez ere. "Bidegile, ez dago biderik; ibiltzean egiten da bidea".

Besarkada bero bat eta eskerrik asko berriro.

Presentación

Pensar, escribir y vivir en euskera.

Esta introducción va dirigida principalmente a los autores de los relatos que a continuación podéis leer; y en primer lugar quiero darles las GRACIAS, gracias por regalarnos estas letras encadenadas, esta alegría y vitalidad, gracias por vuestra sonrisa y por hacernos sonreír:

Espero que guardéis este libro como lo que es, un tesoro, que no pierde valor con el tiempo sino que lo aumenta. Un día, de aquí a unos años, volveréis a leer estos relatos y también sonreiréis, quizá un poco avergonzados pero espero que en vuestro interior orgullosos. Orgullosos porque no es fácil sentarse delante de una hoja en blanco y rellenarla de letras con creatividad, orgullosos por contribuir a que el euskera, una lengua milenaria pero a la vez moderna que es de todos y todas, se recupere día a día con aportaciones como la vuestra.

Leer, escribir, pensar y vivir en euskera es algo que no todos los navarros y navarras hemos podido hacer a pesar de ser nuestra lengua; hacedme el favor de utilizarla. Quienes amamos nuestra lengua siempre os lo agradeceremos.

No sólo sois el futuro, sino principalmente el presente. "Caminante no hay camino, se hace camino al andar".

Un abrazo sincero y gracias de nuevo.

Iz. / Fdo.

FLOREN LUQUI IRIBARREN

**EUSKARA ARLOKO ZINEGOTZI ARDURADUNA
CONCEJAL RESPONSABLE DEL ÁREA DE EUSKERA**





Neska eta zuhaitz magikoa

Edurne Muro Gutiérrez

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Orain dela urte asko herri txiki batean neska bat oso polita zen, ile horia, eta begiak urdinak zituena, soineko urdin batekin.

Erostera joan zen, eta kutxa bat haziekin erosi zuen; orduan landatu zituen eta ez ziren zuhaitz batenak, eta ureztatu zituen guztiak. Orduko guztiak hazi ziren eta benetakoak egin ziren, eta esan zuten:

- Ama, aita, non zaudete!? –galdetu zuen zuhaitz txiki batek kezkatuta.

Eta zuhaitz guztiak zeuden:

- Zer gertatzen da? Zer gertatzen da? –esaten zuten zuhaitz guztiek kezkatutik.

Neskak ikusi zuen mugitzen eta hitz egiten zeudela eta polizia deitu zien. Hortik 5 minututara polizia etorri ziren, begiratu zituzten zuhaitzak eta ikusi zuten ez zela ezer gertatzen. Orduan polizia joan ziren. Neska beldurtuta kalera joan zen eta esan zien zuhaitzei:

- Zergatik mugitzen zarete eta hitz egiten duzue? –galdetu zien neskak.

- Magikoak garelako! –erantzun zuten zuhaitzek.

Hortik aurrera poz-pez bizi izan ziren neska eta zuhaitzak.

Xabiren urtebetetzea

Leire Vergara Contreras

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Xabik 8 urte ditu eta bihar da bere urtebetetzea. Gaur klasean esan digu bihar dela bere urtebetetzea eta klase osoa elkartu gara opari bat erosteko.

Gaur goizean joan gara klasera eta Xabik tarta bat ekarri du, kantatu diogu Zorionak eta oparia eman diogu. Ireki duenean emozionatuta geratu da Osasunaren baloi bat oparitu diogulako, eta esan digu eskerrik asko.

Patioko orduan futbolera jolastu gara. Irabazi digute eta esan dute:

- Irabazi dugu, irabazi dugu, hip-hip-hurra! Xabi paperontzira, hiru gol sartu dituelako!

Eta berak esaten zuen:

- Ez, ez, ez, mesedez! Nire urtebetetzea dela! Orain tarta jatera, hip-hip-hurra, hmm...! Oso goxoa dago! Orain txupatxusak emango dizkizuet.

- Eskerrik asko, Xabi!

- Ez horregatik!

- Orain marrazki bat egingo dugu Xabirentzat.

- Oso polita da, eskerrik asko lagunak! Agur, bihar arte!



XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Neska magikoa

Maite Urra Gorospe

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin orain duela 1000 urte neska bat. Neska hori maite deitzen zen. Maite Zurraire herrian bizi zen. Zurraire herria oso-oso txikia zen. Maitek asmatu zituen lehenengo altzairuak. Lagun guztiek maite zuten Maite, batek izan ezik. Horren izena Romina zen. Rominak beti lehenengoa izan nahi zuen. Maitek lagun bat zuen, saguzar bat. Saguzarra Xabi deitzen zen.

Egun batean Xabi berandu zebilen hegan egiteko kursillo baterako. Orduan Maiteri ideia bat bururatu zitzaion. Kamara magiko bat asmatu zuen.

Kamara magikoarekin erloju bati argazki bat ateratzen zionean denbora gelditzen zen mundu osoan eta berriz beste argazki bat ateratzen zionean denborak aurrera segitzen zuen. Gero Xabiri etxe automatiko bat asmatu zion. Rominak, amorruez beterik, gauza bat asmatu nahi zuen. Rominari, pentsatuz eta pentsatuz, gauza bat bururatu zitzaion, txokolatzeko etxe bat berarentzat eraiki nahi zuen. Udako egun bero batean Romina bere txokolatzeko etxean zegoela txokolatea urtzen hasi zen. Romina lotan zegoen. Konturatu zenerako ia ia ezin zuen atera. Etxeko atarira ailegatu zenerako Rominak txokolatea jan behar zuen ateratzeko. Romina gaixorik jarri zen hainbeste txokolate jateagatik. Maite bisitatzera joan zen, eraman zion xarabe bat sendatzeko eta kamara magikoa oparitu zion.

Orduan Romina konturatu zen beti ezin dela izan lehenengoa. Azkenean Romina konturatu zen denok lagunak izan behar dugula, eta Maiteren eta Xabiren laguna izan zen. Hortik aurrera denak ondo bizi izan ziren eta horrela bada sakelari sar:

Azeriari buztana falta zaio

Eki Laskibar Murua

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Mendiko tontor batean, zelai polit bat zegoen, arbolekin, loreekin... Pika deitzen zen azeri bat bizi zen mendian. Iletsua zen eta marroia eta txuria, begiak berdeak zituen eta sudurra beltza.

Pika bere familiarekin zebilen beti bezala. Baina egun hartan tranpak jarri zituzten, eta gurasoak, ikusi zituztenean, korrika joan ziren, baina Pika ez zen konturatu eta buztana hautsi egin zitzaion. Hurrengo egunean, aita eta ama, ikusi zutenean, aho bete hortz geratu ziren.

Orduan errukiturik metalezko buztan bat jarri zioten. Jarri ziotenetik ez zioten barre gehiago egin. Horrela izan zen.

Hala bazan ez bazan ipuina bukatu da.

Hirugarren mundua

Iranzu Casanoba Salvatierra

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Orain dela urte asko hirugarren mundu bat existitzen zen. Mundu horretan pertsonak 7 buru, 3 hatz eta 9 hanka zituzten.

XVI. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



Bazen bat 9 urte zituena eta pentsatzen zuen:

- Zergatik da hau 3. mundua? Eta zein da 1. mundua? Eta 2.a? Banoa ikustera!

Nabe bat hartu, eta abiatu zen. Planeta bat ikusi zuen eta 1. mundua zen horri "Lurra" izena ipiniko diot. Eta bigarrenari "Lunni" izena jarriko diot. Eta neure munduari "Luk" izena jarriko diot.

Gero 2000 urte pasata "Luk" eta "Lunni" desagertu ziren.

Eta orain gu "Lurra" izeneko planetan bizi gara.

Jon eta bere txakurra

Iñigo Irisarri Lasarte

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 3º curso

Bazen behin Jon izeneko mutiko bat. Txakur bat zuen eta Blubli deitzen zen; Jon Blubli paseatzera joan zen basora.

Blubli eta Jon basoan galdu ziren, eta ez zekiten zer egin. Blublik azeri bat ikusi zuen eta korrika jarraitu zion. Halako batean euria hasi zuen.

Etxe bat ikusi zuen eta korrika joan ziren.

Geroxeago atea jo zuten eta amona batek atea ireki zien eta Jonek esan zion:

- Kaixo, ni Jon naiz, eta hau nire txakurra Blubli. Sar gaitezke? Galdu gara eta!

- Bai, bai, sartu.

Barruan katu bat zegoen. Blubli katuaren janaria jaten hasi zen eta katuak harramaskatu zuen. Amonak Blubli sendatu eta katua zigortu zuen. Jonek leihotik begiratu zuen, eta konturatu zen artetu zuela. Amonak Jonek etxeko bidea aurkitzeko momentua zela esan zien.

Gaua zen eta argi batzuk ikusi zituzten basoan. Blubli korrika, saltoka eta zaunka hasi zen eta Jonek esan zuen:

- Zer gertatu zaio Blubliri!!!

- Zer gertatuko ote zitzaion ba? –entzun zen ahots bat.

Jon konturatu zen bere aita eta ama zirela. Orduan oso pozik jarri zen.



Barañaingo eboluzioa

Mikel Lasarte Cía

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

I ER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Duela urte asko, Barañain herri txiki bat zen. 10 biztanle besterik ez zituen. Iruñaren parean zegoen. 204.000 biztanle zituen Iruñeak. Gezurra zirudien hain hiri handiaren ondoan egotea Barañain!

Egun batean Joxek, Barañaingo etxe txiki batean bizi zenak, galdetu zien bere lagunei:

- Zergatik ez ditugu etxe gehiago egiten?

- Diru asko ez dugulako, txo! –erantzun zioten bere lagunek.

Iruñakoak beti burlaka ari ziren beraiek hiri handi eta antolatu batean bizi zirelako. Joxe lagune-



XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

kin bildu egin zen, eta hauxe proposatu zien:

- Zergatik ez diogu alkateari esaten ea etxe gehiago jartzen dituen?

Bitartean, Iruñako guztiak burlaka jarraitzen zuten.

Alkateak erruki zien, baina berak erantzun zien:

- Nik ez dut pezeta erdirik ere gastatu nahi!

Triste, udaletxetik atera ziren. Alkatea oso diruzalea zen, benetan! Pentsatzen eta pentsatzen, oi hu bat entzun zuten:

- Hara, Barañainek hain pobre segitzen al du? Ja, ja, ja, ja!

- Oh, ez, berriro Moxel burlakaria iritsi da! –azaldu zuen herriko batek.

- Beno, ba, ea Barañain handitzen den. Ja, ja, ja, ja! –bukatu zuen gaiztoaren itxura eginez Moxel delako horrek.

Alde egin zuen Moxelek bere Iruñako etxerantz. Etxea oso polita eta garbia zen.

Joxe eta bere lagunak lana bilatzen hasi ziren, eta lan asko behar izan zituzten. Bere lagunak ere laguntzen zioten Joxeri. Baina ez zuten diru asko kobratzen.

Egun batean, beste bide batetik joan ziren laguntza behar zuten pertsonak bilatzen, baina ez zuten inor aurkitu. Azkenean, Arga ibaira iritsi zirenean, arrantzale bat aurkitu zuten arrantzatutako arrain pila herrira eramanez. Arrantzaleak eskatu zien:

-Lagunduko al didazue arrain hauek saltzeko herrira jaisten? Ondo ordainduko dizuet.

- Bai –erantzun zuten lanean hasiz.

Lehenengo bidaian ia arrain guztiak eramanez zituzten. Lagun batek beste arrainak zaintzen zituen inork ez lapurtzeko. Arrantzaleak, iritsi zirenean, postua hartu zuen merkatuan. Falta ziren arrainen bila itzuli ziren. Zelatan gelditu zena haien zain zegoen; denen artean arrainak merkatura ekarri zituzten arrantzaleari. Arrain guztiak saldu ondoren, eskertu zien:

- Esker mila! Honengatik, arrantzatu nuen urrezko arrain bat oparituko dizuet!

- Non arrantzatu zenuen? –galdetu zion Joxek.

- Elortz ibaian. Ez dut inoiz gehiago hor arrantzatu –erantzun zien.

“Honek dirutza balio du” pentsatu zuen Joxek. Orduan, bere etxera joan, kainabera hartu, eta Elortz ibairantz abiatu ziren. Ibiltzen eta ibiltzen, Elortz ibaia ikusi zuten, azkar arrantzan hasiz. Arrain asko harrapatu zituzten, baina guztira sei urrezko arrain lortu zituzten. Herrira iristean, langile pila bat kontratatu zituzten arrainei esker eta horrela etxe asko eraiki zituzten. Alkatea, harriturik, sustoz hil zen. Horregatik, 24.000 biztanle etorri ziren eta Iruña 108.000 biztanlerekin geratu zen. Joxe alkate izendatu zuten eta bere lagunekin beti harremanetan egon zen.

Geroztik, Barañain gure herria izan da, eta ipuin hau bere sorrera. Noski, Iruñakoek ez dute inoiz gehiago barre egin Barañainen kontura.

Deabrua eta aingerua

Isabel Gordo Baztan

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Duela asko herrialde txiki batean aingeru atsegin bat bizi zen. Munduko beste aldean, berriz, deabru harro bat. Aingeruak jende guztia ongi eta gustura bizitzea nahi zuen, eta deabruak guztiak bere menpean egotea.

Goiz batez aingerua eta deabrua lurraren ertzean elkartu ziren apustu bat egiteko:

- Munduari lehenengo buelta ematen diona munduarekin geratuko da –esan zuen deabruak.

- Ados! Baina baldintza bat jarriko dugu, aste batean egitea bidaia eta itsasoko maskorrik txikiena



hartzea.

Bidaia egiten hasi ziren. Deabrua itsasoan barrena joan zen; itsasoaren beheko aldean maskor antzeko bat ikusi zuen, baina igerian ez zekienez, ez zen ausartu. Deabruak, azkarra zenez, gezur bat asmatu zuen herritarrei kontatzeko: "Maskorra hain txikia zenez ezin zen ikusi".

Aingeruak bidaian zehar ikusten zituen maskor txikiak gordetzen zituen.

Astea igaro ondoren bi txalupak portura ailegatu ziren eta bakoitzak bere maskorra erakutsi zuen. Aingeruak bere maskorik txikiena erakutsi zuen. Deabruak esan zien:

- Nirea hain txikia denez ez da ikusten!

Jendea harriturik geratu zen, eta deabruaren maskorra hartzean deus ez zegoela konturatu ziren (eta aingerua munduarekin geratu zen). Handik aurrera zeruan dabil guztioi zoriona, alaitasuna eta poza emanaz.

Herritarrek esaten dute deabrua lurralde urrun batera joan zela.

Erraldoi bakartia

Xabier Zabalza Azkona

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Bazen behin herri txiki batean erraldoi handi handi bat, baina txikia izan nahi zuena. Bere bizarria luzea zen, sudurra berriz txikia; hankak luzeak zeuzkan baina oso meheak, espageti bat bezalakoak; eta oinetakoak oso handiak zematzen.

Erraldoiak ez zeukan lagunik oso handia zelako, baina sorgin bat beraren laguna zen, orduan esan zion erraldoiak:

- Egingo al didazu sorginkeria bat txikia izateko?

- Bai, egingo dizut –erantzun zion sorginak.

Baina oso txikia zen, hain txikia ezin zuela pertsona arruntekin jolastu. Orduan sorginari berriz eskatu zion erraldoiak:

- Sorgintxo-sorgintxo, nik pertsona normalak bezalakoak izan nahi dut.

- Bale-bale, baina beste deseo bat eta nahiko –erantzun zion sorginak.

Erraldoiak umeekin jolasten zuen baina esaten zien:

- Nik nahi bat eska dezaket, zuek zein nahi duzue?

- Ba, ez dakigu –erantzun zuten denek batera.

- Baina ni erraldoia naiz –erantzun zuen erraldoiak.

- Bai, badakigu, zu lehen bezalakoak izatea nahi genuke baina ona ere –esan zuen mutil batek.

Orduan sorginarengana joan zen berritxo:

- Nik lehen bezalakoak izan nahi dut –esan zion erraldoiak.

- Bale-bale, baina ez eskatu nahi gehiagorik.

Handik aurrera mutiko bat ez zenean ailegatzeko gauza bat hartzeko, deitzen zion erraldoiari eta erraldoiak hartzen zuen haurarentzat. Egun batean, bat-batean, zeruko hodeiak jaitsi ziren beiraiekin jolasteko, eta une hartatik aurrera hodeiekin jokoak egiten zituzten.





XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Melokotoi erraldoia

Ainara Lezeta Marañón

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Joan den astean, Jonek, neska txikia baina ausarta, melokotoiondo bat ikusi zuen. Melokotoi guztiek oso itxura ona zeukaten, baina melokotoi bat oso distiratsu zegoen.

Bat-batean melokotoia handitzen-handitzen hasi eta erraldoi egin zen. Melokotoia kaletan birabira zebilen. Jendea bere etxeetan ezkutaturik zegoen. Jone neska txikiak poliziarri deitu zion, baina polizia ere beldurtuta zegoen. Orduan neska ausarta kalera irten zen, eta tranpa bat jarri zion. Amaren txintxetak hartu eta bidean jarri zituen; neska melokotoiari deika hasi zitzaion:

- Etorri, melokotoi artaburua!

Melokotoia haserre, ziztu bizian joan zen baina melokotoiak txintxetak ikusi zituen eta saltatu egin zituen. Orduan neskak amonaren orratza eta haria hartu zituen, gero konstruktore baten eskalera hartu eta haria eta orratza zintzilikatu zituen teilatuan, eta behean txintxetak. Geroxeago melokotoia gero eta azkarrago zihoan, eta txintxetak ikustean salto egin, baina jostorrazarekin ziztatu zen eta melokotoia barrutik desegin zen.

Azkenik jendea etxeetatik atera eta neskata goratzen jarri ziren. Geroztik baratzako langileak melokotoi bat distiratsu ikusten badu ziztatu egiten du.

Dortoka detektibea

Antziñe Argandoña López

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Goizean basoko giro lasaian oihu bat entzun da. Hara hurbildu eta urtxintxa andrea da, bere ezkurak kendu dizkiotelako negarrez ari da.

Denak bere inguruan, kontsolatzen daude. Han ikusten da nola etortzen den dortoka jauna. Etorri denean urtxintxa andreari galdetu dio:

- Urtxintxa andrea, zer egin dizute hainbeste negar egiteko?

- Ba..., ba ezkurak ostu dizkidate.

- Noiz gertatu da?

- Goizean, jaiki naizenean, gosaltzera joan naiz baina ez ditut ezkurak aurkitu eta negarrez hasi naiz.

- Lasai egon, ezkurak berreskuratuko ditugu. Nork ostu ditu urtxintxa andrearen ezkurak?

Ez zion inork ezer erantzun, orduan urtxintxaren; hau da, Laiaren zulora joan zen, arrastoak bilatzera. Han hosto baten ondoan ezkur bat zegoen eta ondoan sagu baten ileak. Pentsatu ondoren ikusi zuen ile horiek bi sagu gazterenak zirela eta gainera sagu horiek basoko bihurrienak zirela. Hori ikusita saguen etxera joan zen, baina ez zuen ezkurrik ikusi, eta galdetu zuen:

- Non dituzue ezkurak, non ezkutatu dituzue?

- Baina, guk ez ditugu ezkurak ostu!

- Eta nola sinestuko dizuet?

- Begira, ikusi etxea, ez ditugu ezkurak.

Eta etxea ikustera joan zen dortoka, hau da, Serlo jauna.

Saguen esan zuten bezala, ez zuen ezkurrik aurkitu etxean. Serlo jauna bere etxera joan zen pentsatzera, baina ez zitzaion ateratzen Pix eta Pox, hau da, bi saguak baino sagu bihurriagorik. Or-

XVI. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



duan elkarriketa bat egitea pentsatu zuen eta basokoekin hitz egiterakoan horrela esan zien:

- Bihar arratsaldeko 5etan hemen, aintzira ondoan geldituko gara, berri on bat eman behar dizuedalako.

Han zeuden denak, ez zen inor falta, beno bai, Serlo jauna falta zen; Pix eta Poxen etxera zihoan. Hara iritsi zenean leihotik begiratu, eta hutsik zegoela ikusi zuenean, barrura sartu egin zen. Barruan dena begiratu zuen baina ez zuen inon aurkitzen ezkurren poltsa. Hor taula batzuk zeuden beste modu batez jarrita. Sardexka hartu eta zuloa egin zuen. Barruan ezkur asko zeuden poltsan. Hartu eta gero aintzirara abiatu zen. Han jendea oraindik itxaroten zegoen. Serlo harri handi baten gainera igo, eta esan zuen:

- Badakigu nork ostu dizkion Laiari ezkurak. Pox eta Pix izan dira, beren etxean aurkitu ditugu. Zigorra merezi dute.

Serlok zigorrez jendearentzako ezkurren bila bidali ditu Pix eta Pox, berehala negua baita.

Etxe misteriotsua

Ane Lore iriarte Zenborain

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Bazen behin Egoitz izeneko mutiko bat, 11 urte zituen. Egoitz oso maitagarria zen, baina oso isila zen. Gelakoak ez ziren joaten berarekin. Ez zuen anai-arrebarik. Eskola bukatzerakoan beti etxe misteriotsu batera joaten zen. Gelako mutilek bera jarraitzea erabaki zuten, eta etxe misteriotsura sartu ziren isilpean. Han Egoitz aurkitu zuten eta bere ondoan gizon zahar bat zegoen. Orduan, Egoitzek dena azaldu zien:

- Ba, ni hona etortzen naiz gizon honi laguntzera, berak gauzak ezin dituelako egin, itsua delako eta horren truke nirekin egoten da kartetan jolasten, ni ez aspertzeko. Bere lagunei bihotz onetako zela iruditu zitzairen. Handik aurrera, beste mutilek berarekin jolasten zuten eta eskola amaitutakoan agure horren etxera joaten ziren bera laguntzera.

Julenen sekretua

Asier Gordo Baztan

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 5º curso

Bazen behin Julen izeneko mutiko koxkor bat. Julenek 11 urte zituen eta 9 urteko arreba txiki bat zeukan, Maddi izenekoa.

Julen oso mutiko azkarra zen, ilea horia zuen eta oso altua zen. Eskolara joateaz gain futbolearen aritzen zen, eta musika eskolan tronboia jotzen zuen.

Maddi ere eskolara joaten zen, eta margoketa klaseak hartzen zituen, gainera saskibaloian aritzen zen, eta bibolina jotzen zuen.

Julenek bazuen asko maitatzen zuen pelutxe bat, krokodilo berde bat Robert izenekoa. Egunetan zehar gertatutako gauzak bere panpin maiteari kontatzen zizkion. Gure mutilak bazuen bere sekretuak nori kontatu.

Halako egun batean, Julen oso nekatuta zegoen, eta Roberti "Gabon" esan ondoren, ohean sartu zen, baina... bat-batean Robertek mutilari esan zion:

- Gabon baita zuri ere Julen.



XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Mutila erabat harrituta ohetik altxatu zen, baina gezurra zelakoan berriz ohean sartu zen.

Hurrengo goizean, esnatu eta gero, egunero bezala bere pelutxeari hitz egin zion. Eta hara bere sorpresa Robertek erantzun zionean.

- Egun on, Robert, zer moduz egin duzu lo? –galdetu zion Julenek.

- Nik oso ongi eta zuk? –erantzun zion panpinak.

- Nik ere oso ongi, beno orain gosaltzera noa –esan zion Julenek.

Gosaldu ondoren, janzten ari zen bitartean, Maddi Julenen arrebak bi lagunak hizketan ari zirela entzun zuen. Jakinda bere anaia logelan bakarrik zegoela, oso harrituta zegoenez, bat-batean deitu gabe logelan sartu zen, eta han bertan Julen eta krokodiloa hitz egiten ari zirela konturatu zenean, aho zabalik gelditu zen.

Oihuka hasi zen:

- Baina zer da hau? Zer egiten ari zara pelutxearekin hizketan? Ama eta aitari esango diet.

- Ez, ez, mesedez eta faborez aita eta amari ez kontatu, hau gure sekretua izango da –Julenek erantzun zion.

- Ados, ez diet ezer kontatuko –Maddik esan zion.

Baina anai-arrebak haserretuta zeuden egun batean neskak beraien arteko sekretua aita eta amari kontatu zien.

Hori entzun eta gero aita eta ama oso txunditurik eta sinestu ezinik Julenen logelara joan ziren. Gurasoak oso haserre galdezka hasi ziren, baina Julenek ezer erantzuten ez zuenez Roberti galderak egin zizkieten. Panpinak ere ez zuen ahoa ireki.

Gurasoak Maddiren gezurra zela pentsatuz lasaitu ziren. Neska oso triste eta aldi berean oso berotuta gelditu zen, eta nola edo hala gurasoei esandakoa egiaztatu nahi zuen.

Egun batean, bere anaiaren logela aurretik pasatzerakoan, biak, Julen eta pelutxea, elkarrizketan ari zirela entzutean, korrika eta isilik gurasoengana joan, eta mesedez bere atzetik joateko eskatu zien.

Bat-batean hirurak batera logelan sartu ziren, eta bi lagunak ustekabean harrapatu zituzten.

Azkenean Julenek aita eta amari sekretua kontatu zien eta faborez familiatik ez ateratzeko eskatu zien.

Handik aurrera Robertek balio izan zuen familian ziren arazo eta berri onak entzuteko, eta etxe horretako lagunik hoberena izan zen.

Kuxu Katua

Patricia Lizaso Villar

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5. maila

2° PREMIO: Educación Primaria 5° curso

Behin herri txiki batean Kuxu katua jaio zen 1995. urtean. Herria hamar etxetakoa zen, eta denak berdinak. Oso lasaia zen.

Katua familia batekin joan zen. Lehenengo egunean denak katuarekin oso majoak ziren; Kuxu, lo egiteko, kuxin baten gainean jartzen zuten. Hurrengo egunean denek katuari ez zioten kasurik egiten eta gainera oso gaizki tratatzen zuten. Katuak, aspertuta zegoenez, arratsalde batean etxe horretatik ihes egin zuen. Gaua basoan pasatu zuen beldurtuta, hotz askorekin, dardara egiten... oso gaizki pasatu zuen. Goizean, katua esnatu zen eta etxe bat bilatzera joan zen. Kuxuk etxe bat ikusi zuen urrutira, baina oraindik basoan zegoen. Ibili eta ibiliz, nahiz eta etxea gertuago egon, ilunabarra ailegatu zitzaion, eta berriro Kuxu beldurra, logurea, hotza... izaten hasi zen. Bat-batean, bere amarena bezalako buztan bat ikusi zuen, horregatik beregana korrika joan zen. Kuxuk ika-



ragarritzko sustoa hartu zuen, buztana azeri batena zelako; orduan korrika bizian atera zen. Kuxu oso azkar joan zelako urrun zegoen etxera ailegatu zen. Isil isilik sartu zen eta han ez zegoen inor. Orduan, etxea garbitzen hasi zen eta ordu bat pasa eta gero etxeko nagusiak etorri ziren. Katuak egin zuena ikustean, erabaki zuten katu beraiekin geratu ahal zela. Oso ondo tratatzen zuten eta jaten ematen zioten.

Egun batzuk pasa ondoren triste egoten hasi zen bere amarekin egon nahi zuelako. Bat-batean, norbaitek atera deitu zuen eta Kuxu atea irekitzera joan zen. Atea irekitzean aurrez-aurre bere gurasoak zeuden. Kuxu oso pozik jarri zen haiek ikustean. Kuxu, familia agurtzen zuen bitartean, negarrez hasi zen.

Etixerako bidean, Kuxu gurasoekin oso alai joan zen. Eta hala bazan ez bazan sar dadila kalabazan.

Usoen bizimodua

Amaia Andueza Lizarraga

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Udaberriko egun batean, Errusian, jaio nintzen nire lau anaiekin. Oso alai bizi ginen han guztiok, oihan hartan. Hasieran oso gutxi ateratzen ginen jolastera. Hala ere bazeuden arriskuak arrano eta ehiztariekin. Egunak joan, egunak etorri, hegan egiten ikasi genuen.

Uda iritsi eta lagunekin eta anaiekin lautadetara joaten ginen goxokiak jatera. Han elkartzen ginen zeuden hegazti guztiekin. Janari ugari zegoen. Bertako jabeak gu uxatzen saiatzen ziren gehiegijaten genuelako eta ezer gabe uzten genituelako. Gurasoek esaten ziguten laster bidaia handi bat egingo genuela.

Uda joan ondoren gauzak aldatzen joan ziren, gurasoak urduri zeuden. Zuhaitz baten gainean elkartu gintuzten. Han ikasten genuen dena. Han esan ziguten bidaia bukaezin bat egingo genuela:

- Eta noraino? –galdetu nuen.
- Espainiaraino –erantzun zuen batek.

Denak harrিতuta gelditu ginen, hori ez zuelako inork lortuko. Lagun batzuk bide erdian gelditu zirela esan zuten, oso arriskutsua zelako. Denak oso urduri zeuden, hotz gehiago egiten zuelako.

Baina hala ere bidaia horrek merezi zuen Errusian oso negu gogorra zelako.

- Eta bertan, zer dago?
- Fruitu onak jango ditugu eta bero gehiago dago. Hiriko usoak ere ikusiko ditugu. Proba guztiak pasatzen dituztenak datorren udaberrian elkartuko dira.

Ze urdurasuna sartu ziguten egun hartan uso haiek.

Iraila iritsi zen, azkenean oihana isilik zegoen. Hai-ze hotzak jotzen gintuen. Gu prest geunden ateratzeko. Lehenengo egunetan lantokietako keak gure aurpegietatik pasatzen zitzaizkigun hango hirietan:

- Ze itsusiak diren hiri hauek!
- Baietz! Mendiak askoz politagoak dira.

Bertatik ikusten genituen hango lantokiak, obrak



XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

eta kotxeen kea. Trafiko gehiegi zegoen han. Mendiak zeharkatzean, pin, pan, pun..., ehiztariak animaliak hiltzen (zebiltzan). Guk hartutako janarien erreserbak gastatuta geneuzkan, eta gosez hilik gainera. Teilatu baten gainean gelditu ginen lotan. Nik ezin nuen lorik egin gau hartan, pentsatzen eta pentsatzen.

Hurrengo egunean altxatu eta:

- A, a, a, a, a, a! Zer da hau!!

Denok mantxak genituen gorputz osotik eta beste usoek guregandik alde egiten zuten. Denok gripearekin geunden eta batzuk ezin zuten ezta hegan egin ere. Ni oroitu nintzen gure amonak esaten zigunaz hil baino lehen:

- Bidaia bat egin duzueanean gaixotasun batekin egoten bazarete, landarez egindako botika presatatu.

Orduan mendira joan ziren eta han hartu zituzten landare horiek. Baina ez zegoen denentzat eta pagauso asko hil ziren. Guk, hobeto geundenean, jarraitu genuen bidea. Gauza hobetzen joan zenean askoz gehiago aurreratu genuen, eta oso gutxi falta zitzaigun. Ehiztariak oso arraro zeuden, eta ez ziguten tirorik botatzen ere; gu oso harrituta geunden, baina guretzat hobeto.

Handik aurrera oso lasaia zen dena. Gu konturatu gabe helduak ginen gure hurrengo bidaia egiteko.

Oreinen arazoa

Markel Videgain Barberena

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso



Duela urte bat lau oreinen familia bat parke natural batean bizi zen. Horiek nola igaro zuten lehorte luze eta gogor bat kontatuko dizuet.

Hori gertatu baino lehen, egunero joaten ziren neguak utzitako zingira eta urmaheletara beroa kentzera, udan zeuden eta. Han animalia mota asko zeuden: untxi txikiak, hartz handienetara. Parke hartako biologoek milaka gauza zituzten ikertzeko eta asmatzeko. Horrela egon ziren udako aste pare bat; baina, hirugarrenean, dena aldatu zen.

Zingirak eta urmahelak lehortzen hasi ziren, eta lore pila bat hiltzen; hala ere familia horrek uste zuen hurrengo egunean dena pasatuko zela. Baina, ez. Horrela aste bat, bi aste, hiru aste aritu ziren ama gaixorik erori zen arte. Egoera horrek dena aldatu zuen. Urik ez zuten, eta hiru kilometro

ibili behar ziren janari pixka bat lortzeko. Arazo hori ikusita, ez zekiten zer egin eta horrela hasi zuen aita eztabaida.

- Zer egingo dugu? Elikagaia behar dugu bizitzeko!

- Badakit nik. Bilbon, Txan magoa izeneko lagun bat dut, eta agian euri hodeiak ekar ditzake —esan zuen anaia txikiak.

- Baina, hori ezinezkoa da —erantzun zion anaia handiak.

- Ni hiruetako zaharrena naiz, ireki sabela eta jan nire haragia.

- Ez!! —oihukatu zuen anaia txikiak. Baina niri esan zidaten basotik denetarik dakien hontza bat bizi

XVI. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



dela.

- Hori egia izan daiteke –erantzun zuen ertainak. Niri ere esan zidaten.

- Ongi da. Bihar goizean ni neu joango naiz.

Hurrengo egunean, goizeko seieta jaiki zen, hontza esnatuta harrapatzeko asmoz.

- Banoa, esan zuen aitak isilka.

- Ongi zainduko dut anaia txikia.

Handik bost minututara etxetik atera eta basoaren bihotzean sartu zen. Ordu laurden batean basotik zebilela, ahots ikaragarri batek esan zuen:

- Nor sartu da nire basoan? –esan zuen hontzak.

- Basurde bat naiz eta hontzari galdetu nahi diot nola bukatu lehorte honekin.

- Ni hontza naiz, eta hori jakiteko Mendibeltz mendian bizi den arrano bati galdetu behar diozu.

- Ongi da, oraintxe bertan noa harantz.

Oreina, mendiaren azpian zegoela, igotzen hasi zen, eta gaua erori behar zenez, kobazulo batean sartu, eta lo egin zuen.

Hurrengo egunean, esnatu eta soka batez zuhaitz batean lotuta zegoen.

- Nork lotu nau hemen, nor izan da?

- Ni izan naiz, Mendibeltz mendiko arrano beltza.

- Hauxe bai suertea, zure bila nengoen eta.

- Eta zer nahi duzu?

- Lehorte hau geldi dadila. Basoan bizi den hontza batek esan ditu zuri galdetzeko.

- Zer entzun dut? Basoko hontza ezagutzen duzula? Nire lehengusua da eta. Ongi da, askatuko zaitut.

- Eskerrik asko. Baina, orain esan nola geldituko dudan lehorte hau.

- Bai, Gemikako zuhaitzaren adar batekin sua egin, eta hurrengo egunean euria egingo du.

Kobazuloan gelditu zen hurrengo egunean Gemikara abiatuko zela esanez.

Hurrengo goizean, goiz esnatu eta harantz abiatu zen. Mendia jaitsi zuen, eta hiru orduz ibili eta gero Gemikako zuhaitzaren aurrez aurre zegoen.

Adar bat lurlean zegoela ikusita, motxilan sartu zuen, eta etxerantz abiatu zen.

Mendibeltz mendia inguratu zuen eta basoa igaro zuen. Azkenik etxean zegoen.

- Aita! –oihukatu zuen anaia txikiak– Azkenean hemen zaude.

- Bai, eta badakit nola amaitu lehorte honekin.

- Bai, esan eta guk egingo dugu –esan zuen anaia ertainak.

- Adar hauei sua eman eta hurrengo egunean euria egingo du. Tori, hemen dituzue adarrak.

Handik bost minututara sua eman zioten, eta oso urduri zeudenez ohera joan ziren.

Hurrengo egunean:

- Nork utzi du dutxa irekia, den dena bustita dago eta –garrasi egin zuen aitak.

- Nik ez –esan zuen anaia txikiak.

- Aita, aita! –oihukatu zuen ertainak– Begira, euria egin du. Dena normaltasunera itzuli da.

Azkenean, lehorte amaitu zen eta ama sendatu egin zen. Beste aldean bazan hala ez bazan sar dadila Barañaingo enparantzan.





XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Irla galduan

Aritz Lasarte Cía

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Behin, herri txiki arrantzale batean Xabier izeneko bat bizi zen. Bere herriko ausartenetako zen eta oso abenturazalea. Bere lagunekin beti bat zetorren. 20 urte zituen, beraz bazekien zer egiten zuen. Bakarrik bizi zen, eta liburudenda apal batean egiten zuen lan. Diru gutxi irabazten zuen baina nahiko ongi moldatzen zen.

Lehen esan dudan bezala oso abenturazalea zen, eta ezkutuan itsasuntzi bat egiten ari zen noiz-bait bere lagunekin itsasoan barrera abentura bat izateko.

Egun batean Xabierren lagun baten (Mikelen) urtebetetzea zen, eta Xabierrek bere liburudendako liburu bat oparitu zion:

- Zer iruditzen zaizu? –esan zuen Xabierrek– Gure edadeko abenturazale batzuek itsasoan izandako abenturei buruzkoa da.

- Eskerrik asko, gaur bertan hasiko naiz irakurtzen –erantzun zuen Mikelek.

Urtebetetze horretan zinera joan ziren eta itzuli zirenean ordenagailuan jolastu, pizzak afaldu eta lagunartean hitz egin zuten etxera joan aurretik. Hurrengo goizean goiz esnatu zen Xabier bere itsasuntziari begiratu bat emateko. Ez zitzaion bukatzeko asko falta, ia ohartu gabe egin zuen. Itsasuntzia egiteko piezak eta lan tresnak behar zituen, horiek erosteko dirua, eta hori lortzeko beste bi astez gehiago egin beharko zituen lan.

Bi haste horiek tximista baino arinago igaro ziren; astelehenean esnatzetik igandean lokartu arte konturatu gabe pasa zitzaion, eta noski, dirua poltsikora. Azkenean itsasuntzia bukatu zuen. Behin baino gehiagotan auzoko mekanikariaren laguntza behar izan zuen baina orokorrean ez zuen arazorik izan. Ez zen txikia, 8-9 pertsona eraman zitzaieken. Motorrez zihoan, hori jartzeko bi egun behar izan zituen eta pazientzia asko. Itsasuntziak "paretak" berdeak zituen, leihoak gorriak eta lurzorua zuria. Motorraz joan arren, bela batzuek laguntzen zen bada ezpada ere.

Hurrengo egunean bere lagunei deitu zien plazan biltzeko, gauza interesgarri bat esan behar zielako. Agian asmatu izanen duzuen bezala, Xabierrek abentura bat bizitzera joan behar zirela esan behar zien bere lagunei. Baina, eta ezezkoa ematen bazioten? Eta inork ez bazuen joan nahi hainbeste sufrimenduz lortutako itsasuntzian? Ez, azkenean 8 pertsona gutxienez konbentzituko zituen.

Plazara bideratu zen norbait konbentzituko zuelakoan. Bukatu zuenean zenbat konbentzitu zituen kontatzen hasi zen: 1, 2, 3...7, 8 konbentzitu zituen, lortu zuen! Hitz egin zuten bitartean herriko batzuk, alkatea barne, hurbildu ziren, eta dena entzun zuten. Horietako batek esan zuen:

- Lehengo egunean arrantzale bati itsasoaren erdian irla bat dagoela entzun nion. Desafio egiten dizuet hara ez zaretela iristen.

- Ezetz?! –erantzun zuen Xabierrek– Zin egiten dizut baietz.

Hurrengo goizean dena prestatzen hasi ziren: arropak, janaria, edaria eta abar. Esperientzia polita izan zen bidaia prestatzea. Handik lau egunetara untziratu ziren.

Bidaiak bi alderdi izan zituen: txarra eta ona. Txarra, lagun batzuek sukarra izan zutelako, elkarren artean haserretzen zirelako, ekaitz bortitz bat baino gehiago izan zutelako, eta abar. Ona, azkar iristeko esperantza zutelako eta elkarrekin ondo pasatzen zutelako.

Azkenean, agian kasualitatez, agian ez, ia jateko eta edatekorik gabe baina buruz oso ongi. Irla miragarria zen: fruitu eta edari harrigarriak zituen; hain ziren onak!! Xabierrek bere lagunekin hitz egin ondoren, han bertan gelditzea bizitzen erabaki zuten. Beraz etxe handi bat eraikitzen hasi ziren eta bai azkar bukatu ere. Bazirudien lurralde miragarri horretan magia zegoela. Handik gu-



txira Xabierrek gutuntxo bat idatzi zuen:

“Herri maitea, ez dut uste berriro ikusiko garenik, irla miragarri honetan bizitzen geratu baikara. Beraz, desafioa burutzea lortu dugu”.

Egun hartatik urte batzuetara herri arrantzaletatik txikira botila bat iritsi zen barruan mezu bat zeukala. Noski, Xabierren mezua.

Milioika aldiz saiatu dira mundu osoko pertsonak irla horretara iristen baina oraingoz inork ez du lortu.

Erlojua

Martin Bescos Gambarte

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Ezin nuen sinestu amak emandako kaxaren barruan zegoena. Hainbestetan amestu dudana desioa, hainbestetan eskatutako ilusioa. Hainbeste balio duen erlojua. Eta ez zen gutxiariko, 200 euro inguru balio zuelako. Izugarriko gastua gurasoen poltsikorako. Baina egia esanda ez zitzaidan asko inporta, banuen betidanik izan nahi nuena, eta bost axola etxeko ekonomia. Oso erloju berezia zen, suediarra eta zilarrezkoa. Atzealdean nire jaiotze data, eta bazirudien zeozer gehiago jartzen zuela. Baina ez nion erreparatu. Alboetan ordua aldatzeko tramankuluak eta argitzen zuen bat. Argi zuria ematen zuen. Orratzak luzeak eta distiratsuak, eta barruko aldean erlojuaren marka. Ezin nuen sinestu eskumuturrean neramana nirea zela eta ez anaiarena, edota aitonaarena. Erloju horiek ez baitira haurrentzako erlojuak, egia esanda. Kalera atera nintzen. Nire urtebetetze eguna zen eta ohikoa zenez kalean lagunekin elkartzeko nintzen oparien berri emateko. Eta nola ez, alboetako tramankuluak ukitzen hasi ziren nire lagun tonto haiek. Manuk denak batera sakuatu zituen, eta ez dakit nola, inguruan geneuzkan zuhaitz, etxe eta jendea desagertu ziren. Lurrean etzanda aurkitu nuen nire burua, nire ondoan Manu eta Joxe. Nire inguruan, inoiz ikusi ez ditudan etxe moderno, elegante eta erraldoiak. Autoak ez ziren errepideetatik joaten, baizik eta zerrutik. Ez nekien non geunden, baina benetan atsegin zitzaidan oraintxe bertan ezagututako mundua. Etorkizunean geunden, hori ziur.

Manu eta Joxe esnatu nituen eta hirurok kaletik behera joan ginen aho zabalik. Dena modernoa zen. Jendearen arropa distiratsua eta arina zen, eta leku batetik bestera joateko, kabina antzeko batean sartzen ziren, helmuga seinatu eta tubulo erraldoi batzuetatik zehar joaten ziren.

“Futurama” telesaila bezalaxe. Berehala asmatu nuen non geunden bailak ikustean. Bailetara hurbildu ginen eta hor zegoen batekin hizketan hasi ginen.

- Egun on, zenbatgarren urtean gaude, gizon? –galdetu nuen nik.

- 2123. urtean, mutil –erantzun zidan.

- 2123. urtean, eta San Ferminen ohiturak jarraitzen du? –nik berriro.

- Bai, mutiko, gauza onak ez dira inoiz galtzen.

Kaleetan zehar paseatzen eman genuen goiz osoa. Ez genuen ezer ezagunik ikusten. Bazirudien lruña beste edozein hiri zela. Eraikin modernoz josita zeuden kaleak. Jadanik ez ziren existitzen etxe txikiak. Dena kristalez egina zegoen. Jendeak arropa arraroak zeramatzan. Nahiko kolore ilu-netakoak eta distira batzuekin. Autoen gurpilak hegoengatik aldatu zituzten. Eta errepideak desagertu ziren. Zertarako errepideak autorik existitzen ez badira? Ba, haien lekuan, nola ez, etxe erraldoiak jarri zituzten. Niri asko gustatu zitzaidan etorkizuneko lruña hasieran, baina nire gairaikoa faltan botatzen hasi nintzen berehala.

Bat-batean, izugarriko iskanbila entzun genuen. Izugarriko jende multzoa zen. Guztiak kanta-



XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

tzen, eta nola ez, desafinatzen: "Ale Osasuna ale ale... ale Osasuna ale ale...". Banekien ba kanta hura. Osasuna animatzeko kantua zen!!

- Aizue nora zoazte? –galdetu zion Manuk jende multzoko bati.

- Igandea!!!!!!

Patxaran usaina nabaria zen, mozkor zeuden.

- Ze egun den gaur ez, ea nora zoazten –berriro ere Manuk.

Baino ez zuen erantzunik jaso. Haien artean neskato bat ikusi nuen. Benetan inoiz ikusi dudan neskarik ederrena. Aho zabalik geratu nintzen, erlojuarekin gertatu zitzaidan bezala. Etorkizunean geunden, ez nuen berriro ikusiko, beraz harengana hurbildu nintzen.

- Kaixo, nora zoazte? –galdetu nion dardarka.

- Sadar-era. Osasunak jolasten du Madrilen aurka –esan zidan nahiko pozik.

- Beno... –jarraitu nuen nik– orduan ez dago esperantza handirik, ez?

- Noski baietz!! Osasuna mundu osoko talderik hobereena da. Ligako lehenengo postuan dago. Ez du ezta partidu bat galdu. Mundu osoko futbolari hoberenak ditu, eta orain gainera, gizon eta emakumeek nahastuta jokatzan dutenez, nahiko onak izaten dira partiduak Sadarren. Nongoak zarete ba?

- Ba... egian esanda hemengoak, baina orain dela asko futbola nire bizitzatik baztertu nuela. Baina pila bat gustatzen zitzaidan futbola. Eta askoz gehiago Sadarrera joatea eta Osasuna animatzea –erantzun nion irribarrez.

- Orduan etor zaitzete gurekin. Osasuna nahiko aberatsa denez, partidu hau dohain da. Zatozte!!!

Eta bitan pentsatu gabe, jende multzoarekin joan ginen. Osasunaren kantu famatuena abesten Sadarreraino. Harrigarria iruditzen zitzaidan, ederra baino askoz gehiago iruditu zitzaidan, neska toak kontatutakoa. Gizon eta emakumeen taldeak ziren. Gure gizartean inoiz gertatuko ez zen gauza, eta benetan pozten nintzen, nahiz eta niri gehiago gustatu banandurik jolastea, ez dakit zergatik, suposatzen dut gizartearengatik. Eta mundu osoko talderik hobereena zela... hori bai sorpresa!!!

Orduan 2123. urteko Sadar estadioa ikusi genuen.

Hitz bakar batean definituta... erraldoia. Nabaritzen zen dirudun bihurtu zela nire garaiko Osasuna. "Reyno de Navarra" izena hartu behar zuenak behar zuen diru kopuru handia lortu ahal izateko. Izugarri poztu ginen Sadar aberatsa ikustean eta askoz gehiago zelaia eta gradak ikustean. Gradetan esertzea, sofan esertzea bezalaxe zen. Eta zer esan zelaia iruzur. Belarra berde-berdea zen. Inoiz ikusi ez dudak kolore berde bizia. Denbora azkar pasatu zitzaigun Osasuna irabazten ikusten. Izugarritzko jokalaririk onak ziren. Gehienak gure garaiko jokalarien ondorengoak. Izenarengatik esaten dut. Partidu osoa eman nuen Helenerekin hizketan. Helene, jende multzotik kasu egin zigun bakarra. Inoiz ikusi dudak neskarik ederrena. Kontatu zidan azken urteotan gertatutakoa, eta egia esanda asko beldurtu ninduen. Nahiz eta ikusitako 2123.eko Iruñea asko gustatu, ez nuen nahi berriro gauza horietatik pasatu. Ez nuen utziko; Manu, Joxe eta hiruron esku zegoen. Orduan konturatu ginen erlojuaren betebeharrak. Zergatik geunden 2123. urtean eta zertarako itzuli behar ginen. Berriro ere ez gertatzeko.

Bat-batean erlojuaren soinua arraroak egiten hasi zen. Bagenekien ordua heldu zela, 2005. urtera bueltatzeko ordua. Helene eskutik heldu nuen.

- Ez izutu, 2005. urtera bueltatzen gara, handik etorri garela. Ez dugu utziko berriro hori dena gertatzea, zin egiten dizut, asko harritu nau kontatutakoak. Lasai, ez diot inori esango, nahiko go-gorra da eta. Helene... –eta ezpainenetan muxu eman nion.

Lurrean etzanda esnatu nintzen berriro ere. Manu eta Joxe ondoan. Altxatu ginen, elkar begiratu genion, eta begiradarekin hitz egingo bagenu bezala, bakoitza bere etxera joan zen, 2123. ur-



teko lruñea aldatzeko. Eta Manuk ingurugiroa zaintzen eta Joxek manifestaldiak antolatzen zituen bitartean, ni, Sadarrera joan nintzen, Osasuna-Madril arteko partidua ikustera. Han hasi baitzen dena. Han etorkizuneko arazoak erremediatuko nituelako. Heleneren kontseilua jarraituz. Erlojuaren desioa betez. Banekien noren erlojua izan zen nik neramana. Eta zergatik eta nola bidali gintuen Manu, Joxe eta ni etorkizunera, Helenek esan zidan eta. Baina hori beste istorio bat da.

Perretxikoa

Zuriñe Blasco Iturri

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Bada istorio bat, ehun eta ehun urte dituena.

IX. mendean, Euskal Herriko herri txiki batean, Ramontxo deitutako artzain bat bizi zen. Bizi zen mendian, Belate izeneko mendi ospetsu batean. Belate mendia hain polita eta hain freskoa zenez, bertako biztanleei asko gustatzen zitzairen mendira igotzea, ibilaldi ugari emateko.

Egun argitsu eta distiratsu batean, intxaurrak eta gauza gehiago hartzeko asmoz, mendira igo behar izan zuen.

Ibili eta ibili ondoren, artzainak geldiune bat egin zuen, oso nekatuta zegoelako. Hala ere, hamai-ketakoa hartu egin behar izan zuen.

Hiru laurden pasa ondoren, atxatu eta bideari ekin zion. Bere boltsaren barruan, gero eta intxaur gehiago zituen. Orduan, hain nekatua, eta intxaur asko zituenez, erabaki zuen etxera bueltatu egin behar zuela. Beste aldera begiratu eta bat-batean, pixka bat ibili eta gero, zerbait borobila ikusi zuen urrunetik, eta berarengana abiatu egin zen.

Artzainari, iritsi egin zenean, itsu zegoela iruditu zitzaion, edo bestela amets egiten ari zela: begiak zorroztu eta ezin zuen sinetsi ikusten ari zena. Perretxiko erraldoi bat zen.

Intxaurrak bota, eta perretxikoa hartzen saiatu zen, baina ezin zuen oso handia zen eta.

Eta ideia bat bururatu zitzaion! Harri handi batekin bultza egin, eta buelta emango zion. Horrela bai hartuko zuela.



Eta halaxe egin zuen, harriarekin bultza egin, eta bere indar guztiz perretxikoari buelta eman zion. Indarrez hartu, eta etxerantz abiatu zen. Etxera ailegatu, eta perretxikoa pisatu egin zuen. Perretxikoak ia lau kilogramoko pisua zuen.

Eta hain perretxiko berezia zenez, hirira saltzera joan zen. Hurrengo egunean, hirira joan behar zuenean, ez zekien nola eramango zuen perretxikoa, orduan bere lagunari galdetzeraz joan zen. Bere etxera iritsi zenean, bere laguna ikusi zuen belarra moztzen, eta galdetu ondoren, ez zekien zer erantzun, hain harrিতua baitzegoen.

Orduan esnatu, eta karretila batean eraman behar zuela erantzun zion.

Eta artzainak, ondo pentsatu ondoren, beste irtenbiderik ez zegoenez, horrela egingo zuen.

Aste bat pasa ondoren, perretxikoa karretilan jarri, eta hirirantz abiatu egin zen.

Kilometroak eta kilometroak ibili ondoren, artzaina herri askotatik pasa zen, eta herri guztietan jendeak begiratzen zionean harrituta gelditzen zen.

Bat-batean, hirira ailegatu zenean, ez zekien nori saldu, eta pentsatu zuen erregeak nahi izango zuela perretxiko hori; orduan erregearen gaztelura abiatu egin zen.

XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Erregearen gaztelura ailegatu zenean, erregea ikusi nahi zuela esan zien.

Erregea atera zenean, artzainak ez zekien nola hasi esaten.

Orduan, artzainak azaldu egin zion zer gertatu zen, nahi baldin bazuen bere perretxikoa hartzeko, oso ona egon behar zuelako. Erregeak ez zekien zer esan, aspaldidanik ez baitzuen perretxiko bat jan.

Orduan, esan zion pentsatuko zuela. Bitartean, berak nahi baldin bazuen, bere gazteluan lo egiten gelditzeko gonbidatua zegoela.

Gaua pasa ondoren, erregeak ia erantzuna zeukan buruan, eta prest zegoen artzainari azaltzeko. Baina, artzainak ere gauean zehar pentsatu egin zuen perretxiko horrek, bai, ona egon behar zuela.

Goizeko lehenengo orduan, erregea artzainarengana abiatu egin zen berria emateko.

Baina, artzainak, ondo pentsatu ondoren, ez zion erregeari perretxikoa saldu nahi eta ez zekien nola esan.

Erregeak berarekin hitz egiten zuen bitartean, artzainak ideia bat izan zuen, erditik moztu eta alde bat berarentzako eta bestea erregearentzako izango zen.

Orduan ideia erregeari azaldu, eta erregeak onartu egin zuen.

Azkenean, erregea bere aldearekin geratu zen, eta artzainak bere lagunarekin beste aldea banatu egin zuen, bazkari on batean.



Armairu misteriotzua

Itziar Elizalde Calvo

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6. maila

2º PREMIO: Educación Primaria 6º curso

Bazen behin eskola batean armairu txuri bat oso handia zena, eta asko gustatzen zitzaion irakasleek edo haurrek beraren barruan gauzak jartzea, gustatzen zitzaion oso polit egoteko.

Baina egun batean ume batek pipa azalak bota zizkion armairuari eta armairuak esan zion umeari:

- Zergatik bota dizkidazu pipa azalak?

Orduan umea harriduta geratu zen, eta esan zuen:

- Bestela nora botako ditut pipa azalak?

Irakasleak ikusi zuen umea bakarrik ari zela hizketan eta esan zuen irakasleak:

- Zu ez zaude burutik sano eta eskolako medikura eramango zaitugu ea sendatzen zaren. Eskolako medikuak esan zuen ez zuela ezer eta ez zeukala ezer buruan. Hurrengo egunean umeak esan zion irakasleari:

- Ba al dakizu zergatik hitz egin nuen atzo bakarrik?

- Ez –erantzun zion irakasleak.

Orduan umeak esan zion:

- Begira, nik armairuari pipa azal bat botatzen badiot armairua kexatzen da.

- Ba orduan bota armairuari pipa azala ea kexatzen den –esan zuen irakasleak.

Umeak hala egin zuen baina armairuak ez zuen hitz bat ere esan, eta esan zuen irakasleak:



- Atera pasilora oraintxe bertan irakasleari gezurra esan diozulako.
 - Baina nik ez dut ezer esan –erantzun zuen umeak.
- Irakasleak esan zuen:
- Eta irakasleari erantzuteagatik bikoitza egongo zara orduan.
- Umean esan zuen orduan:
- Jope!!!
- Irakasleak klasearekin jarraitzeko agindu zuen.
- Umeak, klasera sartu zenean, armairuari ostikada bat eman zion.
- Armairuak burla egin zion. Irakasleak hori ikusita poliziarri deitu zion.
- Ze telefono du? A, bai, "905-11-99-88".
 - Bai, nor da?
 - Polizia al zara?
 - Bai, noski, zer nahi duzu?
 - Ba, begira, nire gelako armairu batek hitz egiten du!!! –esan zuen irakasleak.
 - Zu tuntuna zara edo? –esan zuen udaltzainak.
- Irakasleak bere buruari esan zion "Niri ez dit inork sinesten". Irakasleak udaltzainak eskolara joan arazi zituen. Orduan poliziek armairua gartzelara eraman zuten. Egun batzuk gartzelan igarota umeak gartzelara joan ziren armairuari bisita egiteko. Umeek poliziei esan zieten:
- Mesedez, atera ezazue armairua gartzelatik!!!
 - Bale –esan zuten poliziek– baina armairuak ez du inoiz gehiago hitz egingo, bale?
 - Bale!!!
- Azkenean armairua eskolara bueltatu zen eta gelako ume guztiak poz-pozik bizi izan ziren, eta ospatzeko festa bat egin zuten.

Eliot Brownen kasua

Adrian Iglesias Martín

I.SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

Kaixo, ni Henry Miller naiz, eta nire laguntzailearekin, Laura Parkerrekin, hilketak eta bahiketak ikertzen ditut; detektibeak gara.

Orain gure azkeneko kasua kontatuko dizuet.

Neguko gau bat zen Londresen, kaleak elurrez gainezka zeuden, ni nire bulegoan nengoan pilota batekin jolasean, telebista ikusten eta nire urdaiazpiko bokata jaten. Bulegoa nire etxeko gela bat zen, egongelaren ondoan.

Bat-batean telefonoaren doinua entzun nuen, eta bertara joan nintzen hartzeko.

- Nor da? –galdetu nuen.

- Nire izena Ashley Brown da –esan zuen doinu urduri batean–. Barkatu berandu deitzeagatik baina oraintxe iritsi naiz etxera, eta nire senarraren gorpua aurkitu dut sukaldean. Izugarri beldurtuta nago, ez dakit zer egin. Zenbaki hau aurkitu dut nire senarraren praktetako poltsiko batean. Paperean zure ogibidea jartzen du: "detektibea". Ikusterakoan erabaki dut horra deitzea; zure laguntza behar dut lehenbailehen. Zure bulegora joan naiteke?

- Brown anderea, hoberena etxeko ezer ez ukitzea da eta poliziei deitzea izango da. Bihar deitu berriz eta joango gara –esan nion.

Adostu genuen bezala, hurrengo egunean deitu zidan:

- Henry Miller? –galdetu zidan.



XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

- Bai, ni naiz. Nor da?
 - Kaixo, Henry, Ashley naiz. Atzo esan zenidan bezala deitzen ari natzaizu, non eta noiz geratuko gara elkarrekin?
 - Ongi, hoberena zure etxera joatea izango da. Emango al didazu zure etxeko helbidea?
 - Bai, oraintxe esango dizut: Main kalea 5. ataria lehenengo B.
 - Ados, nire laguntzailearekin joango naiz.
- Laura bilatu, eta biok batera Ashleyren etxera abiatu ginen. Ailegatu bezain pronto, polizia batek atea ireki zigun. Orduan, Ashley ikusi genuen polizien galderei erantzuten. Ashley neska liluragarria zen. Ille luzea eta gorria zeukan; bere begiak urdin kolorekoak ziren, ur garbia bezalakoak. Pixka bat hurbildu ginen eta zera esan nion:
- Kaixo, Ashley! Ni Henry Miller naiz. Ihardetsi galdera hauei...
 - Ondo, eseri hor.
 - Non zeunden zu hilketaren gauean?
 - Nire auzokidearekin ospitalera joan nintzen, bere amak bihotzekoa izan zuelako.
 - Zenbat denbora egon zinen ospitalean?
 - Bi ordu eta erdi.
 - Nola deitzen da zure auzokidea?
 - Michel, Michel Williams.
 - Non bizi da?
 - Bi pisu gorago hirugarren A-n.
 - Ez zaizu inportako berari galdera batzuk egitea?
 - Ez, ez zait inportako.
 - Zure senarrarekin ondo moldatzen zinen?
 - Gainontzeko bikoteak bezala, ondo konpontzen ginen, baina batzuetan eztabaida txiki batzuk geneuzkan.
 - Zure senarrak etsairen bat al zeukan?
 - Dakizuen bezala, nire senarra kasino baten jabea zen eta bertan etsai asko egiten dituzu, baina hilko zuen inor ez.
 - Beno, momentuz ez zaitugu gehiago molestaturik baina beste aldi batean etorriko gara. Agur.
 - Gero arte.
- Laura eta biok kasinorantz joan ginen. Ia-ia gaua zen eta Laurak esan zidan:
- Kasinoa ordu hauetan irekita dago.
- Ailegatu orduko, atezainak ez zigun sartzen utzi, gure arropa dotorea ez zelako. Nire detektibe plaka erakutsi behar izan nion. Gero esan nion bere jabearen emazteak deitu zidala bere senarra hil zutelako eta nik kasua ikertzea nahi zuela. Orduan pasatzen utzi zigun. Bertan jende gutxi zegoen, bakarrik pokerreko mahaia jendez josita zegoen.
- Kasinoaren barrara joan ginen eta kamarero bat hurbildu zitzaigun; bi koka kola eskatu genituen. Laura kamareroari galderak egiten hasi zitzaion. Orduan kamareroak haxe esan zigun:
- Atzo arratsaldean, nire nagusiak bere emaztearekin eztabaida handi bat izan zuen eta gero emaztea gizon ezezagun batekin irten zen.
- Kasinetik irten ginen eta Michel Williamsen etxera abiatu ginen. Zerbaitek ez zuen enkatatzen. Orduan Laurak esan zidan:
- Goazen auzokidearen etxera.
- Jarraian Michelen helbidea atera nuen poltsiketarik, eta bere etxerantz abiatu ginen.
- Ailegatu orduko ohartu nintzen Michelen atearen aurrean odol tanta lehorrak zeudela, eta orduan Michel eta Ashleyrekin sospetatzen (susmatzen) hasi nintzen. Gero atea jo eta Michelek atea ireki zigun. Gerorako esan nion:

XVI. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



- Kaixo! Ni Henry Miller, eta bera Laura Parker da; detektibeak gara.
- Zure auzokidearen, Eliot Brownen, kasua ikertzera gatoz. Gizon horren emazteak deitu digu. Esan digu zurekin egon dela bi ordu eta erdi ospitalean, zure amak bihotzeko bat izan duelako. Egia al da hori?
- Bai, egia da. Ashley nirekin ospitalean egon zen bi ordu eta erdi, nik eskatu niolako.
- Atzo arratsaldean egon al zinen Elioten kasinoan?
- Ospitalera joan baino lehen, Elioten kasinora joan nintzen Ashley bilatzeko asmoz. Berarekin topatzean, joan ginen.
- Zerbait arraroa somatu zenuen Ashleyren partetik?
- Ashleyk bere senarrarekin eztabaida handia izan zuen.
- Ba al dakizu zertan datzan eztabaida hura?
- Ez dut ideiarik, ez nion galdetu... hain haserretuta zegoen...
- Zein ospitaletan dago zure ama?
- Zentraleko ospitalean. Bertan galdetu non dagoen Katherine Williams eta bertan esango dizuete.
- Ondo da, bukatu dugu, joan beharra dugu, agur:
Etxetik irtetean, Laurak esan zidan:
- Orduan dena argi dago.
- Nik uste dut gezurretan ari zaigula.
Hori esaterakoan biok gure etxeetara abiatu ginen.
- Hurrengo egunean, Laura poliziengana joan zen, kasuari buruzko ze arrasto zeukaten ikustera. Ni, berriz, ospitalera joan nintzen. Katherine Williams ikusteko asmoz. Williams andereak esan zidan ez zuela inolako bisitarik izan, duela zenbait egun ez zuela bere semea ikusi. Eskerrak eman nizkion, eta Lauraren bila joan nintzen. Laura itxaroten ari zitzaidan nire etxeko atearen aurrean. Gure bulegoan sartu, eta esan ziotena kontatu zidan. Poliziek esan zioten egurrezko xafla batekin jo zutela, eta gero bi labankada sartu zizkieten. Ez zuten labana aurkitu baina egurrezko ohola bai. Beraien ustez, lehenengo susmagarria emaztea da, baina laguntzaile bat izan duela uste dute. Alde batetik, Brown jauna hil zuena, eta bestetik, labana gordetzen ari dena:
- Laura, poliziek egia esan dute. Lehenengo susmagarria emaztea da eta beraren laguntzailea Michel Williams da. Baina ez dakit zergatik Ashley Brownek deitu zidan –esan nion Laurari pentsakor:
- Ziur aski iruzur egin nahi zigun.
- Eta zergatik? Ez genuen ezagutzen.
- Baina Eliotek bai, ez al zara gogoratzen zure etxeko zenbakia duela?
- Honek itxura txarra dauka. Uste dut Michel eta Ashley maitaleak zirela.
- Orduan Michelen etxera joan ginen egia jakiteko asmoz. Michelek atea ireki eta egongelara sartzea gonbidatu gintuen. Momentu hartan ohartu nintzen apalategi baten kajoian laban bat zegoela. Laban hori hilketaren labana izan zela pentsatu nuen. Jarraian Laurak zera esan zion:
- Gezurra esan diguzu. Esan zer arraio egin zenuten! Hobe duzu egia esatea.
- Ondo da, egia esango dizuet. Kasinotik irten eta gero, ostatu batera joan ginen.
- Ostatu horren izena esango al diguzu?
- Bai, Klasik izena du –hori esan eta bere istorioarekin jarraitu zuen–. Bi kopa edan genituen eta gero bere etxera joaten lagundu nion. Ondoren, nire etxera joan nintzen.
- Ondo da, bukatu dugu, bagoaz.
Etxetik ateratzerakoan Laurari zera esan nion:
- Ashleyren etxera joango gara. Uste dut hilketaren labana aurkitu dudala, bakarrik hori ziurtatzea falta zait.



XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Hori esanda Ashleyren etxera joan ginen. Bere etxean geundenean, sukaldean sartu ginen, eta bere labanei erreparatu nien, Michelen etxean ikusitakoarekin berdin-berdinak ziren. Orduan gertutako guztia jakin izan nuen.

Lehenengo, kasinotik atera eta Klasik ostatuan sartu ziren. Gero bi kopa edan eta Ashleyren etxera joan ziren. Eliotek, etxera ailegatu zenean, Ashley eta Michel elkarrekin ikusi zituen muxuka. Eliot, hau ikusita, haserre bizian jarri zen; bere onetik aterata zegoen. Ashley izugarri izutu zen Elioten jarrerarekin, eta bitan pentsatu gabe, egurrezko ohola hartu eta Elioti buruan kolpe bat eman zion; lurrera zerraldo erori zen... Michelek, hau ikusita, bada ezpada bi labankada eman zizkion atzetik. Michelek, egindakoaz jabetu zenean, labana garbitu eta bere etxean gorde zuen, inork gertatutakoa jakin ez zezan: bera Ashleyren maitalea zela eta Elioten hiltzailea zela. Eliotek Ashleyk maitale bat zuen susmoak bazituen; hori dela eta, Henry Milerren telefonoa poltsikoan zuen, detektibe bat kontratatu nahi zuelako.

Azkenean Ashley eta Michel kartzelan daude Eliot Brown hiltzeagatik.

Beno, espero dut zuen gustukoa izan dela.

Agur.

Birus erabakigarria

Iñigo Urria Gorospe

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza 2. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 2º ESO

2200. urtearen inguruan gizakiok oso garatuta gaude eta dena makinaren bidez egiten dugu: janaria prestatu, arropa egin, lurra landu, eraikuntzak egin... eta pertsonak ez dugu ia lanik egin behar. Eta normalean ez dago atentaturik, hilketarik; horren ordezkariak egin eta besteen ordenagailuetara bidaltzen dira eta horrela ordenagailua apurtu egiten zaie. Dofro, Masus herrian bizi den informatikari bat da; eta oso ona da birusak egiten, saihesten eta antibirusak egiten.

Egun batean Masuseko alkateak Dofrori deitu zion eta esan zion:

- Dofro, ezagutzen dudun hacker onena zarelako deitu dizut; uste dugu Parry, gure etsaia, plan maltzur bat prestatzen ari dela, birus bat sortzen alegia. Birus hori ezingo da antibirusekin suntsitu, ezta beste modu batez desaktibatu ere. Horregatik pentsatu dugu zu joan zintezkeela Parryren basera, eta birusa duten disko eta ordenagailuei cill izeneko aparatu honekin disparatu eta zuzenean hemen dugun makina batera bidaliko ditu, eta holaxe guk suntsitu ahal izango ditugu.

- Orduan ez da misio oso zaila!

- Gertatzen da arazo txiki bat dugula, eta cill aparatuek funtzionatzeko dragoi baten ezkata behar duela, eta hori lortzeko denboraren makina erabili beharko dugu.

- Baina hori oso arriskutsua izango da.

- Badakit, baina ez dugu beste aukerarik, bihar arte duzu denbora aukeratzeko: baietz aukeratzeko baduzu herri guztia salbatu dezakezu, ezetz aukeratzeko baduzu Parryri berak nahi duena egiten utziko diozu.

Hurrengo egunerako dena aukeratuta zeukan eta baietz aukeratu zuen. Denboraren makina oso arriskutsua zen okerrik txikienarekin beste garai batera joan ahal zarelako, baina Dofro denari aurre egiteko prest zegoen.

- Ze garaira joan behar naiz ezkata lortzeko?

- Orain dela 10.000 urtetara, bertan dago behar dugun dragoi mota eta.

- Eta nola egingo dut?

- Lehenengo, dragoia aurkitu, ondoren, laro izeneko aparatuekin disparatu eta dragoia geldirik

XVI. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



geldituko da, orduan ken iezazkiozu ezkata batzuk. Ondoren, azkar-azkar urrundu zaitez laster dragoia mugitzen hasiko baita. Gero mando honetako botoi honi eman, eta zuzenean hona etorriko zara.

- Orduan oraintxe bertan joango naiz, jarri martxan denboraren makina eta eman iezadazu eraman behar dudana materiala.

- Ongi da, hemen duzu eramango duzun materiala, eta denboraren makina orain dela asko dago prestatuta, berehala joango zara dragoiaren garaira.

Dofro, denboraren makinaren gainean jarri bezain laster, zorabiatuta bezala sentitu zen, eta bat-batean mugitzen hasi zen. Begiak ixtea erabaki zuen ez zorabiatzeko, eta 10 segundo horrela egon ondoren lurra ukitu zuen; begiak ireki zituenean gauza pilo bat ikusi zituen: zuhaitz asko, mendi eta sumendi batzuk, belarra... baina bat-batean zarata arraro bat entzun zuen, eta bira eman zuenean, 20 metro tara dragoi bat ikusi zuen, 15 metroko altuera eta 7 metroko luzera zeukan dragoia. Momentu horretan Dofrok laro-a hartu, eta dragoiari disparatu eta dragoia geldirik gelditu zen; orduan ezkata batzuk hartu, eta lasterka joan zen. 100 m. egin ondoren kobazulo bat ikusi zuen, eta bertan sartu zen; orduan atzerantz begiratu, eta dragoia mugitzen zegoela ikusi zuen, baina Dofro salbu zegoen. Orduan Dofrok eskua poltsikoan sartu zuen mandoa hartzeko, baina poltsikoa hutsik zegoela konturatu zuen, eta pentsatu zuen korrika egiten ari zela eroriko zitzaioela. Atzerantz begiratu zuenean, piztia ez zegoenez, etorri zen bidetik itzuli zen ea mandoa aurkitzen zuen. Metro batzuk ibili ondoren gauza gris bat ikusi zuen, eta hara iritsi zenean, mandoa zela. Baina piztiak zapaldua zuen, eta ez zuen ezertarako balio, hor ez zeukalako beharrezko piezarik hura konpontzeko. Orduan lehen egon zen kobazulora joan zen salbu egon zedin. Denbora asko egon zen zer egin zezakeen pentsatzen, eta bat-batean, pistola bat bi tiroekin eta laban bat zeukala konturatu zuen, eta animalia bat ehizatzen joan zen.

Denbora asko egon ondoren, ez zuen tiro batez hiltzeko animaliarik ikusi, eta kobazulorantz bueltatzen ari zela tximinoaren antzekoa zen animalia bat ikusi zuen. Momentu horretan pistola hartu eta disparatu zion; lehenengo aldi huts egin zuen, baina bigarren tiroan buru erdian eman zion eta tximinoa hil egin zen. Ez zitzaion balarik geratzen baina janaria bazuen behintzat. Kobazuloaren ondoan enbor bat eta makila bat hartu eta sua egin zuen, eta tximinoa erre egin eta zati bat jan egin zuen.

Bi egun pasatu ondoren Dofro janaririk gabe gelditu zen, eta labanak ehiza egiteko balio ez zenez, horrela jarraitzen bazuen gosez hilko zen. Baina goiz hartan gauza arraro bat gertatu zen: kanporantz begiratu zuenean Dofroren tamainako bi tximino ikusi zituen, baina gehiago hurbildu zirenean ikusi zuen antzinako gizonak zirela eta zaku bat zeramatela. Gizonek, Dofroren ondoan zeudenean, zaku ireki eta bertan sartu zuten. Dofrok defenditu nahi izan zuen, baina goiz horretan ez zuenez ezer jan energiarik gabe zegoen. 5 minutu zaku barruan egon zen eta gero ireki egin zuten eta herri batean zegoela konturatu zen, eta dena antzinako gizon-emakumez beteta zegoela ikusi zuen. Bere ondoan Dofro bezala jantzita zegoen gizon bat ikusi zuen, eta aurpegia ikusi zionean, bere baseko lagun Tifer zela ikusi zuen; eta galdetu zion:

- Zer egiten duzu zuk hemen?

- Zu salbatzera etorri nintzen orain dela bi egun, baina 3 ordu neramanean bilatzen, hemengo herrikoekin elkartu, eta preso hartu eta hona ekarri ninduten. Eta zu, zergatik ez zinen gure garaira itzuli?

- Dragoiari ezkata kendu nionean korrika urrundu nintzen, baina korrika nengoela mandua erori egin zitzaidan, eta dragoiak zapaldu eta apurtu egin zuen. Geroztik tximinoak harrapatzen eta jaten egon naiz.

- Ba, niri jaten ongi eman didate.



XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

- Eta ze hizkuntza hitz egiten dute?
- Ez dakit, uste dut seinaz komunikatzen direla.
- Eta mando bat ekarri duzu?
- Bai, hemen daukat, baina ezin dut erabili lotuta nagoelako.
- Ni askatuta nago, nik erabiliko dut.
- Uste dut ezingo duzula.
- Zergatik ez?
- Hor zu lotzera datozelako.
- Orduan gaur gauean bueltatuko gara gure garaira.
- Nola, harrapatuta gaude!
- Gero azalduko dizut.

Egun hori oso luzea iruditu zitzairen, minutuak orduak bezain luzeak zirela, eta orduak egunak bezalakoak; baina azkenean gaua heldu zen eta herrikoak lotara joan ziren. Orduan Dofrok bere labana hartu eta lotzen zuen soka moztu egin zuen. Gero Tiferren soka moztu eta biek ihes egin zuten. Herritik urrun zeudenean Tiferrek mandoa atera, botoia sakatu, eta berriz beren garaira bueltatzen hasi ziren: 10 segundoren buruan beren basean zeuden. Basea beteta zegoen eta, al-katea, ikusi zituenean, oso pozik jarri zen, eta esan zien:

- Pozten naiz zuek ikusteaz, baina orain ez daukagu denbora hitz egiteko. Dekati Parryren base-ra bidali genuen, baina harrapatu egin dute eta orain preso dute, eta uste dugu laster hil egingo dutela.
- Dragoi ezkatik ekarri ditugu; cill-a egin, eta berehala joango gara.
- Ordu erdi barru cill-a bukatuta egongo da, orain joan zaitetzte armak eta materiala hartzera.
- Ze gauza eramango ditugu?
- 4 gauza: cill-a, laser pistola bat, gauzak mozteko balio duen laserra eta ezkutu ikusezin hau.
- Ondo da, prestatu hegazkina eta gu joango gara.
- Bi betebeharrak dituzue: Dekati salbatzea eta disko eta ordenagailu guztiak cill-arekin honaino bidaltzea.
- Bihar eguerdirako hemen izango gara Dekatirekin eta han ez da ezta ordenagailu bat ere geldituko.
- Horrela izatea espero dut. Eta kontu izan zuei ez harrapatzeko, bestela pertsonarik gabe geldituko gara.

Biak hegazkin batean sartu ziren, eta nola egingo zuten dena pentsatzen ari zirenean, pilotu automatikoak abisatu zuen misil batzuk hurbiltzen ari zirela. Parryk bazekien hor zeudela. Orduan biek jausgailu bana hartu zuten, eta bota egin ziren. Itsasoan erori ziren. Tiferrek bazekien ze arrasto uzten zuen misil mota bakoitzak eta esan zion Dofrori igeri egiten azkar iritsiko zirela Parryren basera, misil horiek hurbil erortzeko prestatuta zeudelako.

Ordu bat igeri egiten egon ondoren lurra ikusi zuten. Ailegatu zirenean oso nekatuta zeuden, baina Dekati salbatu behar zuten ez ziren gelditu. Arroka batean metalezko ate bat ikusi zuten, orduan gauzak mozteko balio zuen laserra hartu eta atean zulo bat egin zuten. Barrura sartu zirenean ez zuten inor ikusi eta aurrera jarraitu zuten; bat-batean hots batzuk entzun zituzten eta pistolak hartu zituzten. Orduan hiru soldadu ikusi zituzten eta tiroz hil zituzten.

Aurreratu ahala etsai gehiago ikusi eta hil egin zituzten, eta azkenean ordenagailuz beteta zegoen gela batera iritsi ziren; eta banan-banan guztiei cill-arekin disparatu, eta alkatearengana bidali zituzten. Beranduago, horrelako gela pila zeudela ikusi zuten. Denak bidali zituztenean, gela berezi bat ikusi zuten. Berezia zen atean beste geletan baino askoz zaindari gehiago zeudelako, eta pentsatu zuten hor Dekati edukiko zutela. Atakatzan hasi zirenean zaindariak defenditu egin ziren, baina asko kostata denak hil zituzten, eta gelan sartu ziren. Bertan, pentsatu bezala, Dekati ze-

XVI. Literatur lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz



goen. Dekatiri dena azaldu ziotenenean alkateari deitu zioten eta hegazkin bat bidaltzeko eskatu zioten.

Kanporantz zihoazela, ustekabez soldadu bat agertu, eta Dofrori lepoan disparatu zion. Azkenean Tiferrek eta Dekatik Dofro hegazkinerantz eraman zuten, baina heldu zirenerako hilda zegoen. Masusera iritsi zirenean hileta ospatu zuten, baina Dofroren izena betirako gogoratua izango da Masus herria salbatzeagatik.



XVI Certamen literario infantil-juvenil en euskera

Bertso paperak modalitatea

Modalidad **“Versos escritos”**

Bertsoak

Nerea Castillo Reta

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Beti ikastolara
a ze aspergarri
Guk nahiago jolasak
ta egon kantari

Ikeme kartzelara
ta gu oso triste
Jolasik gabe gaude
berriro astebete

Haurrak plazan jolasten

Nerea Otano San Martín

I. SARIA: Lehen Hezkuntza 4. maila

IER PREMIO: Educación Primaria 4º curso

Doinua: Ama begira zazu.

Herriko baratzean
jende gutxi dago
Neska eta mutilek
jolasak nahiago

Zortzietan etxera
afaltzera goaz
Goizean altxatuta
eskolara doaz



Txano gorritxo

Naiara Sucino Gámez

I. SARIA: Bigarren Hezkuntza I. DBH

IER PREMIO: Educación Secundaria 1º ESO

1) Txano gorriren amak
saski bat prestatu
Amonaren etxera
joan ta banatu

2) Neskatoak bidean
otso bat topatu
Eta elkartu ondoren
mintz eta jolastu

3) Jolastu ta jolastu
otsoak timatu
Galdetu non dagoen
etxea kokatu

4) Amonaren etxera
otsoa ailegatu
Gure txano gorritxo
bidean geratu

5) Otsoak amona
jan eta prestatu
Arropa jantzi ondoren
ohean ere sartu

6) Txanotxu iristean
sabelan baita sartu
Ehiztariak entzunda
otsoa akatu



Aurkibidea / Índice

Ipuinak / Cuentos

SARIA / PREMIO	EGILEA / AUTOR	ORR. / PÁG.
3. maila LH/3° E.P.		
1. saria Neska eta zuhaitz magikoa	Edurne Muro Gutiérrez	5
1. saria Xabiren urtebetetzea	Leire Vergara Contreras	5
1. saria Neska magikoa	Maite Urra Gorospe	6
2. saria Azeriari buztana falta zaio	Ekj Laskibar Murua	6
2. saria Hirugarren mundua	Iranzu Casanoba Salvatierra	6
2. saria Jon eta bere txakurra	Iñigo Irisarri Lasarte	7
4. maila LH/4° E.P.		
1. saria Barañaingo eboluzioa	Mikel Lasarte Cía	7
1. saria Deabrua eta aingerua	Isabel Gordo Baztan	8
2. saria Erraldoi bakartia	Xabier Zabalza Azkona	9
2. saria Melokotoi erraldoia	Ainara Lezeta Marañón	10
5. maila LH/5° E.P.		
1. saria Dortoka detektibea	Aintzine Argandoña López	10
1. saria Etxe misteriotsua	Ane Lore Iriarte Zenborain	11
2. saria Julenen sekretua	Asier Gordo Baztan	11
2. saria Kuxu katua	Patricia Lizaso Villar	12
6. maila LH/6° E.P.		
1. saria Usoen bizimodua	Amaia Andueza Lizarraga	13
1. saria Oreinen arazoa	Markel Videgain Barberena	14
1. saria Irla galduan	Aritz Lasarte Cía	16
2. saria Erlojua	Martin Bescos Gambarte	17
2. saria Perretxikoa	Zuriñe Blasco Iturri	19
2. saria Armairu misteriotsua	Itziar Elizalde Calvo	20
1. DBH/1° E.S.O.		
1. saria Eliot Brownen kasua	Adrian Iglesias Martín	21
2. saria	<i>Hutsik / desierto</i>	
2. DBH/2° E.S.O.		
1. saria Birus erabakigarria	Iñigo Urra Gorospe	24
2. saria	<i>Hutsik / desierto</i>	

Bertso paperak / Versos escritos

SARIA / PREMIO	EGILEA / AUTOR	ORR. / PÁG.
4. maila LH/4° E.P.		
1. saria Bertsoak	Nerea Castillo Reta	28
1. saria Haurrak plazan jolasten	Nerea Otano San Martín	28
1. DBH/1° E.S.O.		
1. saria Txano gorritxo	Naiara Sucino Gámez	29

